

ARAUDI AKADEMIKOA
UNIBERTSITATE MASTER OFIZIALAK
GRADU-ONDOKO IKASKETAK
2022-2023 IKASTURTEA

2022ko irailaren 20an Gradu ondoko Lan Taldeak onartua

AURKIBIDEA

I. SARRERA 3

II. KONTZEPTUAK 3

III. EUROPARA EGOKITUTAKO IKASKETEN EZAUGARRIAK 3

IV. SARBIDE ETA ONARPENA GRADUKO IKASKETETAN 6

V. MATRIKULA 7

VI. IKASLEAK BAJA ESKATZEA 8 VII. ESKOLA EGUTEGIA 9

VIII. IKASKETEN EBALUAZIOA ETA IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK 9

IX. ESPARRUAK ETA ESKUDUNTZAK 10

I. SARRERA

Gradu-ondoko unibertsitate-ikasketen jarduera akademikoa urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren babespean garatzen ari da, Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak Mondragon Unibertsitateari homologatu dizkion ikasketa-planen arabera.

Fakultate honek 2009-10 ikasturtean ekin dio ikasketak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokiturik ezartzeko prozesuari, bai gradu eta gradu-ondo mailan. Prozesu hori honako egutegi honen arabera garatzen ari da:

Gradu-ondoen ezarpena				
Ikasketak/Ikasturtea	2009-2010	2010-11	2011-12	2012-13
DBH, Batxilergoan, LH eta Hezkuntzen irakaskuntzan Irakasle gisa aritzeko Unibertsitate Masterra	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea
Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleanizatunetan Unibertsitate Masterra		1. Ikasturtea	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea
Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapenean Unibertsitate Masterra		1. Ikasturtea	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea

II. KONTZEPTUAK

UNIBERTSITATE-IKASKETA OFIZIALEN EGITURA

Abenduaren 21eko Unibertsitateei buruzko 6/2001 Lege Organikoko 37. artikuluan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak eraldaturik) xedatu eta 1393/1997 Errege Dekretuak garatutakoaren arabera, unibertsitate-ikasketa ofizialak hiru ziklotan egituratzen dira, hots: GRADUA, MASTERRA eta DOKTORETZA.

GRADUA: unibertsitate-ikasketen oinarritzko zikloa da hau eta bere helburua da ikaslea jarduera profesionaletan aritzeko prestakuntza orokorraz janztea. Graduko tituluak 240 ECTS kredituk osatzen dituzte, lau ikasturte akademikotan banaturik, eta bertan bilduko da ikasleak jaso beharreko prestakuntza teoriko eta praktikoa: ezagutza adarreko oinarritzko alderdiak, materia derrigorrezko eta hautazkoak, mintegiak, kanpo-praktikak, gradu bukaerako lana edota bestelako prestakuntza jarduerak.

MASTERRA: masterreko ikasketen helburua da ikasleak espezializazio edo ikerkuntzarako prestakuntza aurreratua hartzea. Gutxienez 60 ECTS kredituk osatzen dituzte.

DOKTORETZA: doktoresetako ikasketen helburua ikaslea ikerkuntza-teknika aurreratueta janztea da; ziklo honetan sartzen da doktoresetza tesia egin eta aurkeztea. Tesia ikerkuntzako jatorritzko lana izango da.

UNIBERTSITATE ALORREKO HAINBAT KONTZEPTU INTERESGARRI

ECTS KREDITUA: ikasketa plan jakin batean programaturik dauden helburuak erdiesteko ikasleek egin behar duten guztirako lan-karga edo -bolumena neurtzeko onartu den neurria da ECTS (*European Credit Transfer System*) kreditua. ECTS bat 25 lanorduren pareko da, ikaslearentzat; ikasturte akademiko bakoitzak 60 ECTS dituenek, ikaslearen 1.500 lanordu dira; ordu horietarik batzuk presentzialak izango dira, eta beste batzuk, ez-presentzialak. On-line ikasketen kasuan presentzialitatea gela sinkronoaren bidez egingo da.

KONPETENTZIAK: prestakuntza-programen diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa gidatzen dituen erreferentzia laborala dira konpetentziak, eta bi motatakoak izan daitezke:

- a) Konpetentzia Espezifikokoak: lan-esparruetako profesionalak bereizgarri dituzten lan funtzioak identifikatu eta horietan oinarriturik definitzen dira konpetentzia espezifikoko edo profesionalak. Horiek kontuan hartuta prestatu ohi dira HUHEZItik irteerako ikasleak, bakoitzak aukeratu duen lan-esparruan
- b) Zeharkako Konpetentziak: hainbat egokiera eta testuingurutan (laboralean, akademikoan, sozialean, etab.) baliagarriak izanik, gizakia gizakitzat garatzeko eta lanean era hobezinean aritzeko prozedurak, jarrerak eta ezagutzak biltzen dituzte zeharkako konpetentzia hauek. Horien artean honako hauek aipatuko ditugu: Talde-lana, komunikazio eraginkorra, arazoak konpontzera orientaturiko pentsamendua, ikasten ikastea, erabakiak hartzea, lidergoa, lanaren ikuspegi globala, enprendizajea eta berrikuntza, eta espirtu kritikoa eta konpromiso etikoa.

DERRIGORREZKO FORMAZIOKO MATERIAK: materia hauek Fakultateak komuntzat eta derrigorrezkotzat ezarri ditu ikasketa beretan diharduten ikasleentzat.

HAUTAZKO MATERIAK: materia hauek ikasleak aukeratu ahal izango ditu, dagokion titulazioan eskaintzen direnen artean.

KANPO PRAKTIKAK: praktikak egitea derrigorrezkoa izango da, eta Fakultatearekin hitzartutako erakunde jakin batean egingo dira. Eskaintza erdi-presentzialeko modalitatean, praktiken garaian, ikasleak lau ordu egin beharko ditu egunean praktiketako zentroan. Lau ordu egin ezin baditu, gutxienez, hiru orduko praktikaldia egin beharko du praktikaldia luzatuz; bestalde, gehienez egunean sei orduko

praktikaldia egin ahal izango du, praktikaldiko epea laburtuz. Praktikak D ereduan egin beharko dira. Arratsaldeko praktikak ikasleak kudeatu beharko ditu. Horrez gain, ikasleak, bi praktikaldiak zentro berean egin beharko ditu.

MASTER BUKAERAKO LANA: Arautegi honetan sartzen diren ikasketa guztien bukaeran Master Bukaerako Lana (MBL) egin beharra dago, eta kasuan kasuko titulazioko Memoria Justifikatzailean Materia horri dagokion fitxan biltzen diren zehaztapen eta edukien arabera egingo da.

HIZKUNTZAK HUHEZIN: HUHEZI fakultateak bere printzipioetan argi adierazten du euskararekin duen konpromisoa. Euskara da HUHEZI fakultatearen komunikazio hizkuntza nagusia, instrukzio zein harreman-hizkuntza nagusia, bai gela barruan, bai gelatik kanpo. Karreraren helburuen artean dago ikasleak prestatzea haien lana euskaraz kalitatez egin ahal izateko, baina baita, aldi berean, euskararen alde sentsibilizatzeko ere; hala, ikasleak beren lantoki eta ingurune hurbiletan euskararen sustatzaile izatea da jomuga.

Horretarako, HUHEZI fakultateak hizkuntza guztiekiko jarrera positiboak sustatu nahi ditu, bai elebidun egiten gaituzten euskara eta gaztelaniarekiko, baita, profil akademikoak eta profesionalak eraginda, ingelesarekiko ere. Hori dela eta, hizkuntzekiko, eta bereziki euskararekiko, hurbiltasuna, erabilpena... sustatu eta bultzatuko dira, eta ikasleei horren araberako jarrera eta portaerak eskatuko zaizkie.

III. GRADU-ONDOKO IKASKETEN EZAUGARRIAK

Ondoko taulan, laburbildurik, jaso ditugu titulu bakoitzeko ikasketa planaren funtsezko ezaugarriak. Honakoak zehazten ditugu bertan: ikasketen iraupena; tituluak eskatzen dituen kredituen guztirako kopurua eta materiak nola banatuak dauden; tituludunei eskudantzia profesionalak aintzat hartuko zaizkien ala ez, eta tituluak zein ezagutza-adarretakoa den.

Gradu-ondoko ikasketak	DBH, Batxilergoan, LH eta Hizkuntzen irakaskuntzan Irakasle gisa aritzeko Masterra
MATERIA MOTA	ECTS kopurua
Derrigorrezkoak	26
Generikoak	14
Espezifikoak	12
Hautazkoak	15
Praktikak	13
Master Bukaerako Lana	6
GUZTIRA	60
IKERKETA IBILBIDEA ESKUDANTZIA PROFESIONALIK TITULUA ZEIN EZAGUTZA ADARRETAKOA DEN	EZ BAI (1) Gizarte eta Zuzenbide Zientziak

(1) ECI/3858/2007 Agindua, abenduaren 27koa (BOE 07.12.29)

IV. SARBIDE ETA ONARPENA GRADU-ONDOKO IKASKETETAN

1. BALDINTZA AKADEMIKOAK

Masterrean sartu ahal izango dute unibertsitateko lizentziatu, diplomatu eta graduatu guztiek eta, oro har, graduondoko ikasketetarako gaitzen dituen unibertsitateko titulu ofizial bat duten guztiek, unibertsitateko irakaskuntza ofizialak ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 EDren eta Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Irakasle izateko, beharrezkoa da lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulua izatea, edota gradu baliokideko titulua. Aldiz, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoa izateko, nahikoa da diplomatu, arkitekto teknikoa edo ingeniari tekniko titulua izatea.

Hizkuntza hautaketa irizpide izango da BH masterrean, atzerriko hizkuntzako B1 eta euskarazko C1 eskatuko direlarik. Ikasleak, titulazio ofizial bat atzerriko hizkuntza batean eginda badauka, atzerriko hizkuntza horretan B1 maila daukala ziurtatuko da.

2. KREDITUAK AITORTZEAZ

Kredituak aitortzeak zera esan nahi du:

a)Ikasleek beste unibertsitate batean ikasketa berberetan lortutako kredituak onartzea, kreditu horiek nahikoak izan ez badira ere master-titulua lortzeko. Kreditu horiek kontuan hartuko dira Master-titulu horri dagozkion ikasketetan, titulu ofiziala lortzeari begira.

Kredituak onartzeko, Fakultateak zenbait alderdiri erreparatuko die: batetik, ea baliokideak diren ikasleek ikasitako irakasgaien gaitasun eta ezagutzak, eta ikasketa-planean aurreikusitakoak; bestetik, ea antzekoak diren ECTS kredituen eskola-orduen kopuruak. Gainera, ezinbestekoa izango da baldintza hauek betetzea:

b)Espainiako edo nazioarteko beste unibertsitate batzuetan lortutako Master mailako kredituak izatea, baldin eta baldintza hauek betetzen badira: batetik, baliokideak izatea ikasleek ikasitako irakasgaien gaitasun eta ezagutzak, eta ikasketa-planean aurreikusitakoak; bestetik, ECTS kredituen eskola orduen kopuruak antzekoak izatea. Halako egoeretan, gehienez ere 30 ECTS kreditu aitortuko dira.

Hezkuntza Ministerioak 2011ko azaroaren 30ean emandako Zirkularraren eta Hezkuntzako Dekanoen Biltzarrean adostutako arauen arabera, salbuespen dira 2015eko irailera bitartean Pedagogiako eta Psikopedagogiako lizentzia-tituluak eskuratu dituzten ikasleak, kreditu gehiago aitortzeko aukera izango baitute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Masterrean betiere, 1393/2007 EDan (861/2010 EDan aldatua) xedatutako kopuru maximoak kontuan hartuta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen Unibertsitate Masterrean, baliokidetu nahi diren ECTSak, Espainiako edozein unibertsitatetan lortuak izan behar dira eta betiere, ECI/3858/2007 Aginduan xedatutakoa (EDU 3498/2001 Aginduan aldatua) betetzen bada eta kreditu guztien batura nahikoa izan ez bada titulu ofiziala lortzeko.

c)Goi mailako beste ikasketa ofizial batzuetan eta beste titulu batzuk lortzeko egindako unibertsitate ikasketetan lortutako kredituak aitortzea (ikus Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikulua).

d)Ziurtagiri bidez egiaztatutako lan-esperientzia eta esperientzia profesionala kreditu gisa aitortzea, baldin eta esperientzia horrek lotura badu master-tituluari dagozkion gaitasunekin. Kreditu aitortuen kopurua ez da

sekula izango 9 ECTS baino handiagoa, eta ezin da aitortu Master Bukaerako Lanari dagokion krediturik. Betekizunak:

- Masterrari dagokion esparruan izandako esperientzia: ikasturte bakoitzeko 3 ECTS. Irakaskuntzako esperientziatzat hartuko da ikasturte batean bederatz hilaitez edo kopuru horretatik gora aritu izana eginkizun horretan, elkarren jarraian izan edo ez.
- Materia bat eta hari dagozkion gaitasunen ECTS kredituak aitortuko dira beti gutxienez, eta ezin da aitortu materiari osatzen ez duen ECTS krediturik.
- Beharrezkoa da zerbitzuak emandako ikastetxeko zuzendariaren egiaztagiri bat edo Hezkuntza Administrazioako organo eskudunaren zerbitzu-orriaren egiaztagiri bat aurkeztea. Egiaztagiri horretan, datu hauek agertu beharko dute: zerbitzuen hasiera- eta amaiera-data, hezkuntza-maila eta araututako ikasketa baimenduen espezialitatea.

e) Ezin da inoiz aitortu Master Bukaerako Laneko krediturik.

f) Dokumentu honetako a) atalean aipatutakoari esker aitortutako kredituak zenbakiz kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 EDaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz. b) eta c) ataletan aipatutakoari esker aitortutako kredituak, aldiz, ez dira zenbakiz kalifikatuko; horrenbestez, ez dira kontuan hartuko espedientearen baremoa osatzeko. Gainera, guztien batura ezin da izan 9 ECTS baino gehiago.

3. KREDITUEN TRANSFERENTZIA

Kredituen transferentzia terminoak hauxe adierazten du: ikasleak Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako ikasketa ofizialetan eginiko ikasketei dagozkien kredituak, titulu ofizial bat erdiestera bideratu ez badira, ziurtagiri akademiko ofizialetan sartzea.

4. ESPEDIENTE AKADEMIKOA

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak, titulua eskuratzeko jomugaz, Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako **irakaskuntza ofizialetan eskuratutako kreditu guztiak** jasoko dira, hala **kreditu transferituak**, nola **aitortuak** zein **gaindituak**, aurreko ataletan adierazitakoaren arabera, eta kasuan-kasuan zein motatakoak diren adieraziko da, beti ere ordainketa guztiak eginda badaude. Aitorturiko kredituak direnean, lehenagoko ikasketei dagozkien datu hauek emango dira: unibertsitatea(k), ikasketa ofizialak eta zein ezagutza-adarretakoak diren; gaindituriko ikasgai edo materiak eta haien kreditu kopurua, eta ikasleak erdietsitako kalifikazioa.

Ikasleak Espediente Akademikoa ikasketak amaitu eta hiru astera izango du eskuragarri. Espediente akademikoa eta titulua jasotzeko ordura arteko ordainketa guztiak eginda izan behar dira eta dagokion tasa ordaindu beharko du ikasleak. Hori egin ezean, ezingo da ez espediente leku aldaketarik egin, ez eta espedienterik edo titulurik jaso ere. Ordaindu beharreko tasa, Eusko Jaurjaritzak zehazten du urtero, Goi-mailako hezkuntza zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko gainontzeko prezioekin batera.

5. ONARPEN PROZESUA

Ikasleak, dagokion programan inskripzioa egingo du. Behin inskripzioa balidatuta, ikaslea onarpen proba bat egitera deitu izango da. Onarpen probako emaitza aldekoa bada eta ikasleak baldintza akademikoak betetzen baditu, ikasleari plaza erreserba egiteko aukera emango zaio, espezialitateen oreka lehenetsiz. Plaza erreserba, ohiko epean matrikulatzen diren ikasleek egingo dute.

Ikasleak ohiko epean matrikula egiten ez badu, plaza erreserbarako ordaindutako kopurua galduko du.

V. MATRIKULA

1. Matrikula-unitate administratiboa materia da.
2. Ikasturte osoko matrikula 60 ECTS da.
3. **Ikasle berriak.** Ikasleak masterreko kreditu guztien matrikula egin dezake. Matrikula, era berean, ikaslearen egokierarekin loturiko gorabeherek eraginda, partziala izatea onartzen da, beti ere masterraren egutegian duen tokia errespetatzen dela kontuan harturik.
4. Ikasleak matrikulatuta dagoen kreditu kopuruen arabera ordaindu beharko ditu matrikula-tasak.

5. MATRIKULA EZEZTATZEA

Kontzeptua

Idazkaritza Akademikoari eginiko eskari-agiri bidez, matrikula ezeztatzea eskatu ahal izango du ikasleak; eskaera hori ikasturte berriko azaroaren 30a baino lehen egin beharko da.

Matrikula formalizatzeko exijitzen diren baldintzarik betetzen ez direnean edo datuak nahiz dokumentazioa faltsutu direnean, ezeztapena ofizioz egingo da.

Ondorioak

Ikasleak berak matrikula ezeztatzea eskatzen duenean edo matrikula ofizioz ezeztatu denean, ikasleak utzi egingo dio Fakultate honetan matrikulaturik egoteari; beraz, ezingo zaio egin Ikastetxe honekiko lotura duela egiazta lezakeen inolako agiririk.

Ezeztapen unera arte ikasleak ordainduriko matrikularen prezioa ez zaio inola ere itzuliko, baina ordaintzeko dauden gainerako kopuruen kobrantza bertan behera utziko da.

VI. IKASLEAK BAJA ESKATZEA

1. BORONDATEZ ESKATZEA BAJA

Ikasleak Fakultatean baja eman nahi duenean, idatziz jakinarazi beharko dio Idazkaritza Akademikoari.

Ondorioak

Idazkaritza Akademikoak ikasleak ikasturtean kontsumitzeko dituen deialdiak baliogabe utziko ditu eta bajaren berri helaraziko dio Administrazioari, ikasleak ordaintzeko dituen matrikula-zatiak kobra ez diezazkion.

Eskaintza erdi-presentzialaren kasuan baja eskaera hilaren 10aren aurretik jaso ezean, hilabete horretako kuota kontutik pasako zaio ikasleari.

Masterren kasuan, X. puntuaz azalduta dagoenez, matrikularen ordainketa 3 kuotatan banatuko da: lehen herena matrikula egiterakoan, bigarrena urtarrilean eta azkena martxoan. Ordainketak egin beharreko hilabete hauetan, baja eskaerak hilaren 10aren aurretik jaso beharko dira. Horrela egin ezean, ezarritako kuota kontutik pasako zaio ikasleari.

Ordura arte ordaindutako kopuruak ez zaizkio, inola ere, itzuliko ikasleari.

2. IKASTEN JARRAITZEKO DENBORA AGORTZEAREN ONDORIOZ DATORREN BAJA

Testu honetan jasotako arauen arabera ikasten jarraitzeko denbora agortzearen ondoriozko nahitaezko baja gertatzean, Idazkaritza Akademikoak baja horren berri helaraziko dio Administrazioari, hurrengo hilabetetik aurrera, ikasleak ordaintzeko dituen matrikula-zatiak kobra ez diezazkion.

Aurreko kasuetan bezalaxe, ordura arte ordaindutako kopuruak ez zaizkio inola ere, itzuliko ikasleari.

VII. ESKOLA EGUTEGIA

Dagokion titulazioko Gradu-ondoko Lan Taldeak proposatzen du eskola egutegia: ikasturtearen hasiera, oporraldiak, jaiegunak eta ikasturtearen amaiera noiz izango diren. Ondoren, Kontseilu Errektoreak onetsi egin behar du. Datuok Fakultateko webgunean argitaratuko dira, ikasleek horren berri izan dezaten.

Aurreikusiriko egutegi-marko horretan, seihilekoetan edo hiruhilekoetan banatuko da lana, eskola ikasturte bakoitzeko titulazioek hartuko duten erabakiaren arabera. Horretarako, lehen seihilekoa irailean hasi eta urtarrilean amaituko da; bigarrena otsailean hasi eta ekainean amaituko da. Hiruhilekoak, berriz, oporraldien arteko eskola-tarteekin bat etorriko dira, hots: iraila–abendua (lehen hiruhilekoa), urtarrila–martxoa/apirila (bigarren hiruhilekoa), martxoa/apirila–ekaina (hirugarren hiruhilekoa).

Epe horietan integratuak daude bai garatzea aurreikusita dauden hezkuntza-jarduerak, baita gaitasunak eskuratzean ikasleak egiten duen aurrerakuntza neurtzeko baliatuko diren ebaluazio mekanismoak ere. Arautegi honetan xedaturiko bigarren deialdia ekain-uztailean egingo da.

VIII. IKASKETEN EBALUAZIOA ETA IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK

1. EBALUATZE SISTEMA

Ebaluazio-jarduera desberdinen arteko konbinazio orekatu baten bitartez etekina eta ikaskuntza baloratuko da.

Ebaluazio horrek, aurreko ataletan adierazitako alderdiekin koherentziaz, kasuan kasuko titulazioa definitzean erreferentzia gisa hartu diren Konpetentzia Orokorrekin eta Espezifikoeekin loturik garatu diren ezagutza, trebezia eta jarrerak lehenetsiko ditu.

Ikasleak daraman materia bakoitzaren ebaluazio jarraitua eta ikasturte amaierakoa egingo dira.

Ikasturte berean bi ebaluazio-deialdi egitea aurreikusi da: lehena, materia amaitu eta berehala; bigarrena, uztailean.

2. KALIFIKATZE SISTEMA

Materiak 0 eta 10 zenbakien (dezimal bakarrez) arteko puntuen bitartez kalifikatuko dira. Horretan, 5 eta 10 puntu (biak barne) bitarteko kalifikazioa lortzen duenak materia gaindituko du, eta 5 puntura iristen ez denak ez du gaindituko.

3. IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK

A. Ikasle sartu berriek, matrikulatu diren kreditu guztien % 20 gainditu behar dute gutxienez, lehen ikasturtean, HUHEZIn ikasten segituko badute. Aparteko gorabeheretan eta ikasleak hala eskaturik, dagokion Gradu-ondoko Lan Taldeak salbuespenak jarri ahal izango dizkio arau honi.

B. **Deialdi kopurua:** ikasleak, materia bakoitzeko, gehienez lau deialdi izango ditu: Lehena materia amaitzerakoan, bigarrena uztailean, hirugarrena hurrengo ikasturtean materia amaitzerakoan eta laugarrena uztailean.

C. Master Bukaerako Lana aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasketa plana osatzen duten gainerako materia guztiak gaindituak edukitzea. Gainera, Master Amaierako Laneko zuzendariak, ikasleari baimena eman beharko dio lana entregatu eta aurkezteko. Zuzendariaren baimenik gabe, ezingo da lana depositatu. Gehienez lau deialdi izango ditu: lehena uztailean, bigarrena irailean, hirugarrena hurrengo ikasturteko martxoan eta laugarrena ekainean.

D. **Ebaluazio deialdiari uko egitea:** Deialdi kopurua zenbatzerakoan ikaslea aurkezten ez denekoa ere kontuan hartzen da. Ez, ordea, ikasleak ebaluazio deialdiari uko egiten dioenean. Deialdiari uko egiteko honako arauak jarraituko dira:

- Justifikatu beharrik gabe materia bakoitzeko gehienez bat aurkeztu ahal izango du, (kalifikazio aktetan "KE" gisa jasoko da). Materia bakoitzean ukoa aurkezteko epea Idazkaritza Akademikoak bidalitako mezu baten bidez jakinaraziko da.
- Gaixotasun-arazoak direla-eta edo beste egoera ezohiko batean ere, ukoa aurkeztu ahal izango da, (kalifikazio aktetan "KU" gisa jasotzen dena).

E. **MBLaren aurrerapena eskatu ahal izateko:**

- MBLaz gain, gehienez titulazio osoko %5 pendiente izatea, eta ikasgai guztiak beranduenez otsaileko deialdikoak izatea.
- Ikasturte bakoitzean behin eskatu ahal izango da aurrerapena, eta Abenduak 10 baino lehen egingo da, idazkaritza akademikoarekin harremanetan jarritz.
- Kasu berezirik balego, Graduondoko Batzordeak, ikasle bakoitzaren egoera akademikoa aztertuko du eta egokia dela ikusiz gero, egoera ahalbidetuko luke.
- MBLa aurreratzen duenak, bi deialdi izango ditu:

*Otsaila (deialdi aurreratua)

*Uztaila (ohiko deialdia)

- MBL aurrerapena eskatu duen ikasleak, otsaileko deialdi aurreratuan kalifikazio bat izango du (0-10 bitartean) eta hortaz deialdi hori erabili egin beharko du nahitaez.
 - Otsaileko deialdi aurreratuan ikasleak ez du izango aukerarik UKOrik (ez KU eta ez KE) eskatzeko.

Eskubide hauetaz baliatzeko, ikasleak eskaria egin beharko du idazkaritza birtualaren bidez, eta dagokion agiria aurkeztuz idazkaritza akademikoan. Dagokion Gradu-ondoko Lan Taldeak erabakiko du ikasleak deialdiari uko egitearen onarpena.

Deialdiari uko egiteak ez du esan nahi ikasleak ebaluazio proba errepikatzeko aukera duenik edo ezarrita dagoen egutegitik kanpo egiteko, ez eta materia horri dagokion kopurua itzuliko zaionik ere, baizik eta materia hori gainditzeko aukera hurrengo deialdira atzeratuko dela.

4. KOPIATZE ETA PLAGIOEN KASUAK

Kopiatzea edota plagio egitea ez da zilegi ez ikasleen jarrera pertsonal moduan ezta ere etorkizunean profesionala izan nahi duen pertsona batengan. Hori dela eta, kopiatzen harrapatzen den ikasleari, materia hori guztia hurrengo deialdirako geldituko zaio.

Ikasle batek behin baino gehiagotan kopiatu duela frogatzen bada, edota materia batean baino gehiagotan kopiatzen harrapatzen bada, Gradu-ondo Lan Taldeak erabaki beharko du ikasle horrek Fakultatean ikasten jarraitu ahal izango duen edo kanporatua izango den.

Plagioen kasuan: ikasleak lan baterako edozein motatako euskarri analogiko zein digitaletik zati

adierazgarriak eta nabariak erabiltzen baditu, haien jatorria era egoki eta estandarizatu batean aipatu gabe, Gradu-ondoko Lan Taldeak erabaki beharko du ikasle horrek Fakultatean ikasten jarraitu ahal izango duen edo kanporatua izango den. Lehenengo kasuan, konprometitutako materia guztiak hurrengo deialdirako geldituko zaizkio.

IX. ESPARRUAK ETA ESKUDUNTZAK

Arautegi honetan agertzen ez diren kontuez edota zabaltzea, sakontzea, zehaztapenez argitzea, etab. eskatzen duten kontuez bidezko jotzen dituen arautegiak egin ahal izango ditu HUHEZIKO Gradu-ondoko Lan Taldeak.

HUHEZIKO Gradu-ondoko Lan Taldeak, Araudi honetan xedatutakoaren babespean, Gradu- unibertsitate-ikasketetan jarduera akademikoa normal gara dadin zainduko du eta Hezkuntza Komunitatearen asebetetzerako bidezkoztat jotzen dituen hobekuntza-proposamenak egingo ditu.

Hemendik aurrera Araudi honen aldaketak egitea HUHEZIKO Gradu-ondoko Lan Taldearen eta ez beste inoren eskuduntza da, bertako kideren batek hala eskaturik.

X. MATRIKULAREN ORDAINKETA

Ikasturteko matrikularen zenbatekoa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Kontseilu Errektoreak ezarriko du.

Matrikulatutako ECTS kopuruaren arabera izango da egin beharreko matrikula ordainketa.

Matrikularen ordainketa 3 edo 5 kuota berdinetan banatuta egin daiteke. Ordaindutako diru kopurua ez da inolaz ere itzuliko, ez ohizko gertakariren batengatik fakultateak bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat. Amortizatze bidean dauden masterretako ikasleek ezik, ohiko epean matrikula egingo duten gainontzeko ikasleek plaza erreserbatzea ordainduko dute beti ere masterra egiteko baldintza akademikoak betetzen badituzte.

MBLaren prezioan %80ko deskontua egingo da honako bi egoera hauetan:

- Ikasturte baten 60 ECTS-ekin matrikulatu, eta MBLa ez beste ikasgai guztiak gainditzen dituzten ikasleek kasuan. Bigarren ikasturtean MBLan bakarrik matrikulatuko dira, eta ordainketetan %80ko deskontua izango dute ECTS prezioan.
- 60 ECTS-ekin bi ikasturtean zehar banatu, eta bigarren urtearen amaieran MBLa ez beste ikasgai guztiak gainditzen dituzten ikasleek kasuan. Kasu honetan, hirugarren ikasturtean MBLan bakarrik matrikulatuko dira, eta ordainketetan %80ko deskontua izango dute ECTS prezioan.

Practicumaren eta/edo MBLaren prezioan %50eko deskontua egingo da honako egoera honetan:

- Ikasturte batean 60 ECTS-ekin matrikulatu, eta practicuma eta/edo MBLa ez beste ikasgai guztiak gainditzen dituzten ikasleek kasuan. Bigarren ikasturtean practicumaren eta/edo MBLan bakarrik matrikulatuko da ikaslea, eta ordainketetan %50eko deskontua izango du ECTS-ekin prezioan.

Arautegian aurreikusita ez dauden gainontzeko kasuak aztertzeke ez ohiko batzorde berezia eratuko da dagozkion partaideekin erabakirik egokiena hartzeko. Bestalde, ikasturtean zehar matrikula guztiz ordaindu ez bada, kasuan kasu aztertuko da egoera eta dagozkion erabakiak hartu eta jakinaraziko dira, besteak beste, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko aukera zabaldu ala ez.

I. ERANSKINA. KREDITUAK AITORTZEA. Eragina.

Kredituak onartuz gero, ikasleak titulazioan eskatutako kredituak osatzeko falta duen kreditu kopurua baino ez du egin beharko.

Irizpide orokorrak.

Onartuko den unitatea materia izango da, eta gainditutako kredituei loturiko gaitasunen eta aitortzen araberakoa izango da onarpena. Horretarako, ikasleak onarpen eskaerako kredituei dagokien ikasketa planeko gaitasunei buruzko nahikoa informazio eman beharko du.

Materietako kredituak osotasunean hartuko dira kontuan, hau da, ezin izango dira materia bateko kredituak zatika aitortu. Nahitaezko eta hautazko irakasgaien bidez edo kanpoko praktiken bidez lortutako kredituak aitortu ahal izango dira, betiere, izaera, helburu eta gaitasunak antzekoak badira. Ezin izango dira onartu, inolaz ere, master bukaerako lanengatik lortutako kredituak.

Kredituak onartzeko prozedura.

Kredituak onartzeko prozedura hasteko, ikaslea masterrean matrikulatuta egon behar da eta master horretarako baino ez zaizkio onartuko kredituak, krediturik onartuz gero. Matrikulatu ondoren, ikasleak urrats hauek eman beharko ditu:

Tramitazioa:

Ikasleak masterreko koordinatzaileari zuzenduko dio kredituak onartzeko eskaria. Hori egiteko azken eguna eskolak hasi eta hilabetekoa izango da, eta dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Eskaria, behar bezala beteta.
- Espediente akademikoa, originala edo espediente konpultsatua.
- Aitortzea eskatu nahi den materia bakoitzeko, aurreko ikasketetan gaindituta duzun materiaren programa edo programak (materia bat baino gehiago badira) jatorrizko zigiluarekin.

Ikasleak onarpenaren bidez gainditzen dituen kredituak onartutakotzat jo eta hala jasoko dira bere espedientean; hala, idatziz jasoko dira ikasketak gainditzeagatik egindakotzat jotako ikasketa- planeko irakasgaiak eta onartutako kredituei dagozkien materiak. Espedientean jasota ageriko da jatorrizko irakasgaien tipologia, kreditu kopurua eta lortutako kalifikazioa.

II. ERANSKINA. Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterraren AMORTIZAZIO-PLANA.

Sarrera.

Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterraren inplementazioarekin batera, Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterraren iraungipena onartu da.

Baldintzak.

1.- Amortizazio-plan honek ikasketa plangintza honi eragiten dio:

IKASKETAK	RUCT
Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterra	

2.- Iraungitzearen kronograma:

IKASTURTEA	TITULAZIO BERRIA	AMORTIZATU BEHARREKO TITULUAK
2019/2020	Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra	----
2020/2021	Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra	----
2021/2022	Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra	Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterra

3.- Iraungitzearen ondorio akademikoak:

A. 2019/20 ikasturteetik aurrera ez da Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterrean ikasle berririk onartuko.

B. Masterrean matrikulatutako ikasleek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) 2019/2020 ikasturtean ez da ikasle berririk onartuko.
- b) 2019/2020 ikasturtean ikaslea gairik beharreko ikasgai guztietan matrikulatu beharko da eta matrikulatutako kreditu kopuruaren arabera ordainduko du.
- c) Materia guztietako bi deialdi egongo dira otsailean eta ekainean.
- d) 2020/2021 ikasturteetik aurrera ezingo da UKOririk eskatu.
- e) 2022/2023 ikasturtean ez da programa honetan ikaslerik onartuko.

C. Araudi honetan aurreikusten ez diren kasuetan edo egoera berezien aurrean, Gradu-ondoko Lan Taldeak ebaziko du, beti ere ikaslearen eskariz eta kasuan kasuko egoera aztertu ondoren.

III. ERANSKINA. Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan Unibertsitate Masterraren AMORTIZAZIO-PLANA.

Sarrera.

Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterraren inplementazioarekin batera, Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan Unibertsitate Masterraren iraungipena onartu da.

Baldintzak.

1.- Amortizazio-plan honek ikasketa plangintza honi eragiten dio:

IKASKETAK	RUCT
Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan Unibertsitate Masterra	4312397

2.- Iraungitzearen kronograma:

IKASTURTEA	TITULAZIO BERRIA	AMORTIZATU BEHARREKO TITULUAK
2019/2020	Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra	----
2020/2021	Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra	----
2021/2022	Ikaskuntza errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra	Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan Unibertsitate Masterra

3.- Iraungitzearen ondorio akademikoak:

A. 2019/20 ikasturtetik aurrera ez da Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan Unibertsitate Masterran ikasle berririk onartuko.

B. Masterrean matrikulatutako ikasleek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) 2019/2020 ikasturtean ez da ikasle berririk onartuko.
- b) 2019/2020 ikasturtean ikaslea gainditu beharreko ikasgai guztietan matrikulatu beharko da eta matrikulatutako kreditu kopuruaren arabera ordainduko du.
- c) Materia guztietako bi deialdi egongo dira otsailean eta ekainean.
- d) 2020/2021 ikasturtetik aurrera ezingo da UKOrik eskatu.
- e) 2022/2023 ikasturtean ez da programa honetan ikaslerik onartuko.

C. Araudi honetan aurreikusten ez diren kasuetan edo egoera berezien aurrean, Gradu-ondoko Lan Taldeak ebatziko du, beti ere ikaslearen eskariz eta kasuan kasuko egoera aztertu ondoren.

D. Araudi honi egin beharreko ondorengo aldaketak Gradu-ondoko Lan Taldeari dagozkio.